

ELKARRIZKETARAKO GONBIDAPENA

**Ahots entzungarriak, hizkuntza ikusezinak: hizkuntza gutxituen
aitortza eta sailkapena munduan.**



RECLAM Nazioarteko Kolokioa

2025eko azaroaren 17-18-19

Maison des Sciences Humaines de Bordeaux

Nor garen:

RECLAM Kolektiboa (REconnaissance et Catégorisation des LAngues Minor(is)ées – "oihartzuna" esan nahi du gaskoi-okzitanieraz) Bordele Montaigne Unibertsitateko (UBM) eta São Paulo Unibertsitateko (USP) sei ikertzaile gaztek osatzen dute, beren ikerketa-zuzendarien babesarekin

Zendako deialdi hau?

RECLAM kolektibotik uste dugu hizkuntzak ez direla espazio akademikoetan soilik defendatzen. Justuki, batez ere hizkuntza komunitateak eta erakundeek eguneroko borroketan biziarazten, transmititzen eta biziberritzen dituztela sinesten dugu. **Paulo Freire** bezalako pentsalariek garatutako jakintzen elkarrizketa nozioan inspiratuta eta **Orlando Fals Borda**,

iduritzen zaigu jakintza bat bera ere ez dela beste bat baino handiagoa eta esperientzien eta ezagutzen topaketa horizontaletik eraikitzen dela benetako eraldaketa soziala.

Paulo Freirek esan zuen bezala, *"inork ez du inor hezten, inork ez du bere burua bakarrik hezten, gizakiak elkarrekin hezten dira, munduak baldintzatuta"*. Horregatik solasaldi hau, egiazko elkartruckerako gunea izatea nahi dugu, egunerokotasunean beren hizkuntzen defentsan eta biziberritzean lanean ari direnen eta hizkuntza horiei buruz mundu akademikotik hausnartzen dutenen arteko hartu emanerako gunea.

Nori zuzendua da deialdia?

Hizkuntza gutxituen defentsan, transmisioan eta biziberritzean lan egiten duten elkarte, kolektibo, herri erakunde eta mugimendu sozialei luzatu nahi diegu nazioarteko solasaldi honetan aurkezpen bat proposatzeko gonbidapena. Haien lanaren funtsezko balioa aitortu nahi dugu eta beren ahots eta bizipenak entzunak, partekatuak eta aitortuak izango diren espazio bat sortu nahi genuke.

Gonbidapen hau ondoko aktibitateetan ari diren eragileei zuzendua da, besteak beste:

- Hizkuntzen biziberritzerako proiektuak.
 - Belaunaldien arteko hizkuntza transmisioa sustatzeko ekintzak.
 - Herri irakaskuntza-ikaskuntza esperientziak.
 - Hizkuntzen dokumentazioa, artxibogintza eta sustapena.
 - Hizkuntza eskubideen defentsa eta aitorpena.
-

Parte hartzeko moduak

1. **Testigantza:** zuen hizkuntza biziberritzeko edo haren defentsan egin duzuen esperientzia baten aurkezpena.
2. **Ekintza kolektiboen aurkezpena:** indarrean eman diren herri ekintza edo estrategiak.
3. **Herri-hausnarketa:** hizkuntzaren transmisioa eta iraunarazteari loturiko erronka eta ikaskuntzak.

Garrantzitsua: Aurkezpenek ez dute formatu akademiko bat jarraitu beharko. Ahozko hizkuntza, narrazioa eta esperientzien partekatzea baloratuko dira.

Proposamenak igortzeko:

Proposamenek .doc edo .docx formatuan izan beharko dute, edo audio/bideo bidez ahozko formatua nahiago bada.

Proposamenek honako osagaiak ukan beharko dituzte:

- Erakundearen edo kolektiboaren izena.
- Harremanetarako pertsonaren datuak.
- Proposamenaren izenburua.
- Deskribapen labur bat (300 hitz edo 5 minutuko audio/bideo bat gehienez).
- Aurkezpenaren hizkuntza (aurkezpenak hizkuntza gutxituan egin daitezke. Halere, ulermena ahal bait handiena izan dadin, aurkezpen dokumentua ondoko hizkuntzetako batean segurtatu beharko da: frantsesez / portugesez / espainolez / ingelesez. Ezinezkoa bazaizue, ez duda gurekin harremanetan jartzea, itzulpen baten eskuratzen lagunduko zaituztegu).
- Zehaztu kolokioan zuzenean edo distantziaz parte hartuko zenuketen.

Igortzeko azken eguna: 2025eko maiatzaren 25a.

Helbide honetara: **comite.languesminorisees@gmail.com**

Hizkuntzak eta aniztasuna

Inklusioa errazteko gisan, proposamenak frantsesez, portugesez, espainolez edo ingelesez izan beharko dute eta bereziki sustatu nahi dugu hizkuntza gutxituen baliapena. Helburua hizkuntza aniztasuna bere osotasun eta aberastasunean aitortzea da.

Gure engaiamendua

Orlando Fals Bordari segika, guk ere uste dugu “*ikerketa emantzipaziorako izan dadin, herri jakintzak eta jakintza zientifikoak elkarrekin egin behar dute aitzina*”. Horregatik, engaiatu nahi dugu komunitateen ahotsak kolokioan leku garrantzitsua ukan dezan segurtatzeko.

Gainera, kolokioan aktore ez akademikoen ekintzak eta testigantzak ikustarazteko espazio bereziak izanen dira. Era berean, aktibitate kulturalak antolatuko dira inguruko hizkuntza eta kulturei ikusgarritasuna emateko (okzitanierari, euskarari, guaraniari, eta beste.).

Kontaktua

Edozein galdera edo informazio osagarrirentzat ondoko helbidean antzemanen gaituzue: comite.languesminorisees@gmail.com

Espero dugu proposamen anitz jasoko ditugula elkargune hori **jakintzen elkarrizketa** bat izan dadin eta ahots guziak entzunak eta aitortuak izan daitezen.

Gogotik itxaronen zaituztegu!